

02/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

2023KO MARTXOAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Saioa Tolosa Zubelzu (EH Bildu taldea)
Esther Iztueta Zelaia (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Rafael Uribarren Axpe (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2023ko martxoaren 30ean, arratsaldeko 17:30etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2023ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu dute.

2.- 2022-2024 URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA BEHIN BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziak gaurko egunean egindako bilkuran emandako irizpenaren berri eman du. Irizpen horren edukia honakoa da:

Batzordeburuak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari eta honek azaldu du Anoetako Udalak, 2021eko abenduaren 30ean eginiko Udal-batzarrean, 2022/24 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa behin behinean onartu zuela, eta behin betiko testua 2022ko apirilaren 19ko 72. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Geroztik, bitan onartu da hura aldatzeko proposamena: lehena, 2022ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran egindako proposamena, Anoetako Herri Ikastolan DBH Ieko HABI proiektua aurrera eramateko diru-laguntza izenduna onartzeko, baita dirulaguntzen plan estrategikoaren ondoriozko aldaketa ere egiteko; eta bigarrena, 2022ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran egindako proposamena, Anitz Dantza Taldearen eta Su-Berri Pilota Elkartearen dirulaguntza lerroak aldatzeko, eta Anoetako Herri Ikastolaren aldeko dirulaguntza lerro berria onartzeko, sexu heziketa programa garatzeko, baita Anoetako San Joan Bataiatzailearen parrokiaren aldeko dirulaguntza lerro berria onartzeko ere.

Oraingoan, bi dira dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeko proposamenak: batetik, “Gu ere bertsotan” ekimenerako dirulaguntzaren kopurua aldatzea, eta bestetik, Alkartasuna Bar, S.L. elkarteari elektrizitateko ordainagiriak ordaintzeko laguntza ekonomiko gehigarria emateko dirulaguntza lerroa sortzea.

1. Gu ere Bertsotan. Anoetako Herri Ikastola.

Euskara eta hezkuntza batzordeak, 2022ko urriaren 17an eginiko bileran, besteak beste, honako proposamen hau egin zuen:

“...»

Euskara batzordeak PROPOSATU du, quorum nahikoarekin, 2023-2024 ikasturteko Gu ere Bertsotan ekimena bideratzeko dirulaguntza bikoiztea Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Udalbatzak onar dezan dagokion Osoko Bilkuran.

Dirulaguntza lerroa: Gu ere Bertsotan. Anoetako Herri Ikastola

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Euskara</i>
<i>Sektore hartzaileak</i>	<i>Hezkuntza: Anoetako Herri Ikastola</i>
<i>Helburuak</i>	<i>Anoetako Herri Ikastolako haur eta gaztetxoekin “Gu ere Bertsotan” programa burutzea.</i>
<i>Lortu nahi diren ondorioak</i>	<i>Haur eta gaztetxoaren garapenean eragitea, Bertsolaritza ikuspegi globalizatzaile batetik, hizkuntzan, kulturaren, musikan eta trebetasun pertsonal zein sozialetan garatzea.</i>
<i>Egikaritze epea</i>	<i>Zehaztu gabe.</i>
<i>Kostuak eta finantzaketa iturriak</i>	<i>Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziarioa funts propioekin egiten da.</i>
<i>Ekintza Plana</i>	<i>Dirulaguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.</i>



ANOETAKO
UDALA

Jarraipena eta ebaluazioa

Ikasturte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzek beren helburua bete duten edo ez.

Partida	Onuraduna	Azalpena	Kopurua	Mota	Indarreko planean aurreikusia
1 0000.470.335.00.00	ANOETAKO HERRI IKASTOLA	Gu ere Bertsotan ekimena	4.320 € (2024)	Izenduna	4.320 € (2024)

...”.

2. Elektrizitate-gastuak. Alkartasuna Bar, S.L.

Bigarrenari dagokionez, Alkateak azaldu du bere nahia dela Alkartasuna Biltokiaren kudeatzaileei urritik martxora bitarteko hilabeteetako energia ordainagiriak ordaintzeko 200 euroko laguntza ematea, baldintza ekonomikoko pleguetan agertzen den laguntzaren osagarri gisa. Izan ere, Alkartasuna Biltokia herriko jubilatuen etxea ere bada eta arratsaldeetan bertan elkartzen dira. Horrez gain, udalak ere hainbat ekintza dinamizatzen ditu herriko adineko pertsonentzat. Arrazoi hau dela eta, Alkartasuna Biltokiko esleipendunek berogailua modu egonkorrean jarri behar izaten dute, bertako erabiltzaileen ongizaterako. Baina, azken urtean energiaren prezioak nabarmen egin du gora eta esleipendunari ordainagiriak ordaintzeko laguntza indartzea erabaki da Alkatetzatik. Gisa honetara, berogailua jarrita mantentzea lortu nahi da.

Dirulaguntza hori emateko Anoetako Udalaren eskumenen gainean bi txosten egin dituzte teknikariek: batetik, Ingurumen eta Landa Garapen teknikariak, 2023ko otsailaren 14an; eta, bestetik, Gizarte Langileak, 2023ko martxoaren 3an.

Idazkari Kontu-hartzaileak hitza eskatu dio Alkateari eta bi gauza azaldu ditu: batetik, 2022ko irailaren 21ean egin zuen eragozpenezko txostenean jaso zuen legez (2022ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran eman zuen horren berri), bere iritziz legez kontra dago luzatuta Alkartasuna jubilatutako egoitzako taberna-jatetxearen ustiaketa zerbitzu-emakida bi urtez, eta, bestetik, dirulaguntza-lerro hau jasota dago 2023. ekitaldirako Aurrekontu Orokorrean, zehazki, 1.0000.481.230.30.01 (788) aurrekontu-partidan, “Dirulaguntza. Alkartasuna jubilatuen Elkarte”, 1.000 euroko kontsignazioarekin. Aitzitik, ez dago jasota 2022-2024 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta kontsignazioa ez da nahikoa eman nahi den dirulaguntzarako, 200 eurotan ugaritu behar delarik. Azken hori entzunda, Alkateak adierazi du egin daitekeela kreditu-transferentzia bigarren kapitulutik laugarren kapituluko aurrekontu-partidara.

Horiek entzunda, eta ados egonda egin beharreko kreditu-aldaketarekin, honako eduki hau proposatzen da Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzeko, behin dagokion kreditu-aldaketa eginda:

Dirulaguntza lerroa: Alkartasuna Bar, S.L. elkarte. Elektrizitate-gastuak.

Eskumen arloa	???
---------------	-----



ANOETAKO
UDALA

Sektore hartzaileak	Alkartasuna Bar, S.L. elkarteko erabiltzaileak, bereziki, jubilatua.
Helburuak	Alkartasuna Bar, S.L. elkarteari elektrizitateko ordainagiriak ordaintzeko laguntza ekonomiko gehigarria ematea. Zehazki, urritik martxora bitarteko hilabeteetako energia ordainagiriak ordaintzeko 200 euro/hilabeteko laguntza ematea.
Lortu nahi diren ondorioak	Alkartasuna Bar, S.L. elkarteari diruz laguntzea lokala Udalak eskatutako tenperaturan mantentzeak dakarren elektrizitate-gastuari aurre egiten, bertara joaten diren erretiratuen ongizaterako.
Egikaritze epea	Urritik martxora bitarteko hilabeteak.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Dirulaguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Egikaritze epea amaitutakoan, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekiko da, eta bertan aztertuko da emandako laguntzak bere helburua bete duenentz.

Partida	Onuraduna	Azalpena	Kopurua	Mota	Indarreko planean aurreikusia
1 0000.481.230.30.01	ALKARTASUNA BAR, S.L.	Elektrizitate-gastuak ordaintzeko dirulaguntza gehigarria.	1.200 €	Izenduna	2.400 €

...”.

Idazkariaren eta Allkatearen azalpenak entzun eta gero, Ogasuneko Batzorde honek, aho batez, Udalbatzari proposatzen dio honako erabaki hau hartzea:

AKORDIO- PROPOSAMENA

LEHENENGOA. *Onartzea Anoetako Herri Ikastolaren eta Alkartasuna Bar, S.L. Elkartearen aldeko dirulaguntzen lerroen aldaketa eta sorrera, hurrenez hurren, proposatutako eran.*

BIGARRENA. *2022-2024 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea eta behin behinean onartzea.*

HIRUGARRENA. *Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.*

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

LAUGARRENA. *Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da, eta dagokion iragarkia probintziako aldizkari ofizialean, udal iragarki-taulan zein egoitza elektronikoan argitaratuko da.*

Hala ere, Udalbatzak egokitzen jotzen duena erabaki ahalko du.

...”.

Behin Idazkariak Udal Ogasun eta Kontuetaarako Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Nuria Carbonell zinegotziak galdetu du ea zergatik dauden espediente honen gaineko bi txosten, alegia, bata Ingurumeneko teknikariak egindakoa eta bestea Gizarte Langileak egindakoa, eta ea zein izango den dirulaguntza honetaz arduratuko den saila. Galdera horri Alkateak erantzun dio azalduz bi txosten horiek eskatzeko arrazoiak desberdinak zirela: Ingurumeneko txostenaren xedea zen aztertzea ea fakturen gastuen aldetik bazegoen justifikatzerik udazkeneko eta neguko gastu handiagoa; Gizarte Zerbitzuen txostenak, aitzitik, dirulaguntza emateko Udalak dituen eskumenak aztertzea zuen xede. Dirulaguntzaren ardura izango duen Sailari dagokionez, Alkateak uste du Ingurumeneko sailetik bideratu beharko litzatekeela, energiarekin baitu zerikusi handiagoa.

Zalantzak argituta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoetako Herri Ikastolaren eta Alkartasuna Bar, S.L. Elkartearen aldeko dirulaguntzen lerroen aldaketa eta sorrera, hurrenez hurren, proposatutako eran.

BIGARRENA. 2022-2024 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea eta behin behinean onartzea.

HIRUGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun baliouduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

LAUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da, eta dagokion iragarkia probintziako aldizkari ofizialean, udal iragarki-taulan zein egoitza elektronikoan argitaratuko da.

3.- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA GIPIZKOAKO UDALEK INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO ESPARRU HITZARMENA ONARTZEKO ETA HORRI ATXIKITZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziak gaurko egunean egindako bilkuran emandako irizpenaren berri eman du. Irizpen horren edukia honakoa da:

“...

Batzordeburuak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari eta honek azaldu du urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, 141. artikuluan aurreikusten duela administrazio publikoek elkarlanean jardun behar dutela. Artikulu horren 1.c) puntuak dio gainerako administrazioei behar duten informazioa emango dietela beraien eskumenak gauzatzeko beharrezkoa denean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen arteko lankidetzak horri esker, efizientzia administratiboa hobetu daiteke eta 39/2015 Legean ezarritako baldintzak bete daitezke, hala nola herritarrek administrazio jardulearen esku dagoen edo beste edozein administrazio egindako dokumentazioa ez aurkezteko duten eskubidea, besteak beste.

Aipatzekoa da Nisae plataforma martxan jartzeak administrazio publikoen arteko zerga datuak trukatzeko lankidetzan izan zuen bultzak da. Hala ere, plataforma honek ez ditu informazioa trukatzeko behar guztiak betetzen.

Beraz, esparru hitzarmen honen helburua da Nisae plataforma bidez egin ezin litezken informazio trukaketei estaldura ematea da. Horretarako, udal bakoitza 2023ko martxoaren 6ko 110/2023 Foru Agindu bidez onartutako eta martxoaren 17an 53. GAOan publikatutako esparru hitzarmenari atxiki ahal izango zaio.

Idazkariaren azalpena entzun eta gero, Ogasuneko Batzorde honek, aho batez, Udalbatzari proposatzen dio honako erabaki hau hartzea:

AKORDIO- PROPOSAMENA

LEHENENGOA. *Onartzea Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Anoetako Udalak informazioa elkartrukatzeko esparru hitzarmena.*

BIGARRENA. *Adierazitako esparru hitzarmenari atxikitze eskatzea.*

HIRUGARRENA. *Konpromisoa hartzea esparru hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko.*

LAUGARRENA. *Alkateari ahalordea ematea hitzarmena eta horren eranskinak sinatzeko.*

HIRUGARRENA. *Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari ebazpen hau jakinaraztea.*

Hala ere, Udalbatzak egokitzen jotzen duena erabaki ahalko du.

...”.

Behin Idazkariak Udal Ogasun eta Kontuatarako Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. *Onartzea Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Anoetako Udalak informazioa elkartrukatzeko esparru hitzarmena.*

BIGARRENA. *Adierazitako esparru hitzarmenari atxikitze eskatzea.*

HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzea esparru hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko.

LAUGARRENA. Alkateari ahalordea ematea hitzarmena eta horren eranskinak sinatzeko.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari ebazpen hau jakinaraztea.

4.- HERRIKO FESTETARAKO PREZIO PUBLIKOAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziak gaurko egunean egindako bilkuran emandako irizpenaren berri eman du. Irizpen horren edukia honakoa da:

“...

Batzordeburuak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari eta honek azaldu du, 2023ko martxoaren 16an, Kultur dinamizatzailleak txostena aurkeztu zuela 2023ko herriko festetarako prezio publikoak proposatuz. Lehengo urtean ez bezala, aurten gutxieneko justifikazioa egin du, nahiz eta 2/1990 Foru Arauaren 26.2. artikuluan prezio publikoen zenbatekoa kalkulatzeko memoria ekonomiko-finantzarioaren kalkulua eta irizpideak jarraitu ez izan.

Txostenean proposatutako prezioak honako hauek dira:

- “- Jaietako zapiak: 2 €*
- 6 sardinen platerkada: 1 €*
- Sagardo dastaketako kopak: 5 € (pintxo 1 barne).*
- Sagardo dastaketako pintxoak: 1 €”*

Kultur dinamizatzaillearen txostena aztertu eta Idazkariaren azalpena entzun eta gero, Ogasuneko Batzorde honek, aho batez, Udalbatzari proposatzen dio honako erabaki hau hartzea:

AKORDIO- PROPOSAMENA

LEHENENGOA. *Kultura Teknikariak herriko festetarako proposatutako honako prezio publiko hauek onartzea:*

- Jaietako zapiak: 2 €*
- 6 sardinen platerkada: 1 €*
- Sagardo dastaketako kopak: 5 € (pintxo 1 barne).*
- Sagardo dastaketako pintxoak: 1 €*

BIGARRENA. *Erabaki hau egoitza elektronikoan, Udalaren iragarki-taulan, gardentasun-atarian eta GAOn argitaratzea, argitalpen hori egin arte indarren jarriko ez delarik.*

Hala ere, Udalbatzak egokitzat jotzen duena erabaki ahalko du.

...”.

Behin Idazkariak Udal Ogasun eta Kontuetaarako Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Kultura Teknikariak herriko festetarako proposatutako honako prezio publiko hauek onartzea:

- Jaietako zapiak: 2 €
- 6 sardinen platerkada: 1 €
- Sagardo dastaketako kopak: 5 € (pintxo 1 barne)
- Sagardo dastaketako pintxoak: 1 €

BIGARRENA. Erabaki hau egoitza elektronikoan, Udalaren iragarki-taulan, gardentasun-atarian eta GAOn argitaratzea, argitalpen hori egin arte indarren jarriko ez delarik.

5.- SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA, 2023. URTERAKO, ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziak gaurko egunean egindako bilkuran emandako irizpenaren berri eman du. Irizpen horren edukia honakoa da:

“...

Batzordeburuak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari eta honek azaldu duenez, 2022ko abenduaren 24an, BOEn, abenduaren 23ko 31/2022 Legea argitaratu da, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Lege horrek III. Tituluko I. Kapituluan arautzen ditu sektore publikoaren zerbitzura dauden langile-gastuak, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsarien igoeren mugen gaiari heldu dio, honakoa esanez: “1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariet ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinasunari dagokionez. 2. Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (HPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratua batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratua datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundera Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...).”.

Aurrekoa ikusita, eta EUDELe egindako gomendioarekin bat eginda, proposatzen da ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipatutako 31/2022 Lege horren 19-Bi-2 artikuluan xedatutakoari dagokionez, % 0,5eko igoera gehigarri bana aurreikusten duena, hau da, KPIH bilakaerari eta BPG 2023ko bilakaerari lotuta, Ministro Kontseiluaren Erabakian adierazitako egunetan xedatutako dutena betetzea gomendatzen da.

Horiek horrela, Idazkariaren azalpena entzun eta gero, Ogasuneko Batzorde honek, aho batez, Udalbatzari proposatzen dio honako erabaki hau hartzea:

AKORDIO- PROPOSAMENA

LEHENENGOA. *Onartzea abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19-Bi-1 artikuluan xedatutako sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2,5eko ordainsari-igoera, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokionez, 2023. urterako eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.*

BIGARRENA. *Ordainketa datorren nominaren ordainketan gauzatzea.*

Hala ere, Udalbatzak egokitzen jotzen duena erabaki ahalko du.

...”.

Behin Idazkariak Udal Ogasun eta Kontuatarako Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. *Onartzea abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19-Bi-1 artikuluan xedatutako sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2,5eko ordainsari-igoera, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokionez, 2023. urterako eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.*

BIGARRENA. *Ordainketa datorren nominaren ordainketan gauzatzea.*

6.- ALKATEAREN ORDAINSARI-IGOERA, 2023. URTERAKO, ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziak gaurko egunean egindako bilkuran emandako irizpenaren berri eman du. Irizpen horren edukia honakoa da:

“...

Alkateari ez zaio aplikatzen aurreko puntuan azaldutako ordainsari-igoera, ez baita sektore publikoaren zerbitzuko langilea.

Hala ere, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera gauzatzen den bakoitzean bezala, bere nahia da bere soldata Udaleko langileenarekin batera igotzea eta horregatik, puntu hau Batzordearen erabakipean jartzen du, ondoren Udalbatzari proposa diezaion.

Horiek horrela, Idazkariaren azalpena entzun eta gero, Ogasuneko Batzorde honek, aho batez, Udalbatzari proposatzen dio honako erabaki hau hartzea:

AKORDIO- PROPOSAMENA

LEHENENGOA. *Onartzea Alkatearen soldata 2,5ean igotzea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokionez, 2023. urterako eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.*

BIGARRENA. *Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea.*

HIRUGARRENA. *Ordainketa datorren nominaren ordainketan gauzatzea.*

Hala ere, Udalbatzak egokitzen jotzen duena erabaki ahalko du.

...”.

Behin Idazkariak Udal Ogasun eta Kontuetaarako Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. *Onartzea Alkatearen soldata 2,5ean igotzea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokionez, 2023. urterako eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.*

BIGARRENA. *Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea.*

HIRUGARRENA. *Ordainketa datorren nominaren ordainketan gauzatzea.*

ALKATETZA

7.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkateak 2023ko urtarrilaren 9tik 2023ko martxoaren 15a bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman da eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

8.- 2022KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak hitza hartu du, eta azaldu du oraindik ez dela onartu 2022ko aurrekontu-ekitaldiaren likidazioa, baina datorren astean egingo dela uste dela. Iaz bezala, aurten ere udal zerbitzuak ari dira likidazioa egiten, kanpora atera gabe.

2021eko ekainera arte, idazkari kontu-hartzaileen egoera oso ezegonkorra izan zen, eta horrek egoera kaotikoa ekarri zuen maila globalean udal-kudeaketaren eremu guztietan, besteak beste, kontabilitatean. Hala, 2021eko likidazio-espeditatea osatugabe zegoen, bi idazkari kontu-hartzaile desberdinek egindako bi txostenekin, likidazioa beren kabuz inoiz egin ez zuten kontabilitate-zerbitzuekin eta likidazioak islatzen zituen datuen egiazkotasunari buruzko zalantza ikaragarriarekin.

2022an, aitzitik, 2021eko ekitaldiaren likidazioa berandu aurkeztu bazen ere, gutxienez udal-zerbitzuek eginikoa izan zen. Horri esker, duela urte asko arrastatutako akats ugari antzeman eta konpondu ahal izan ziren, datu zaharkitu asko eguneratu ziren, hurrengo ekitaldiko likidazioari begira zuzendu beharreko kontabilitatean akatsak antzeman ziren...

Aurten ere ildo beretik jarraitu du Udalak, eta berriro ere udal-zerbitzuek egiten ari dira 2022ko aurrekontuaren likidazioa, kanpoko enpresen laguntzarik gabe. Likidazio hau egiterakoan, lehengo urteetatik arrastatutako beste hainbat akats antzeman eta konpontzeaz gain, beste hainbat aurrerapauso ematen ari dira, aipagarrienak: batetik, dirulaguntzen kontrolean, jarraipenean eta kontabilizazioan hobekuntza nabarmena, orain arte behar bezalako kudeaketa jasotzen ez zutenak. Hala, aurten, lehenengo aldiz, ekitaldian zehar jasotako dirulaguntza guztiak kontabilizatzen ari dira, eta, baita lehen aldiz ere, baliabide espezifiko afektatuak atxikitako finantzazioa duten gastuekin lotu dira kontabilitate-programan, bakoitza dagokion aldian, horien hasieratik likidazioa kalkulatu den egunera arte. Horrela, aurten, finantzazio atxikia duten gastuetako gehiegizko finantzaketagatiko doikuntza zehaztasun handiagoz kalkulatu ari da, eta, ondorioz, errealitatera hobeto egokitutako Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakina lortzen. Bestetik, 2023ko otsailean martxan jarri du Izfek inbentarioko programa berria, kontabilizazioarekin erlazionatuta, eta lehen aldiz txertatu ahal izan dira 2022ko zenbait ondasun inbentarioan, dagokien amortizazioarekin.

Horiek guztiak kontuan izanda, espero da 2022ko ekitaldiko likidazioaren berri ematea datorren ohiko osoko bilkuran.

Zinegotziak konforme eta jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

9.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

012. DEKRETUA		
2023.01.23		
Hartzekodunak	IFZ / IFK	
LANDARRI SLU	B20531448	
Prozedura		
Faktura kontratu txikietan onartzea		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
2212988046	2022-12-27	1.200,27 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko urtarrilaren 23an egindako eragozpenezko txostena.

Goian aipatutako gastuak ez du inolako oinarririk, 2021ean irregularki esleitutako kontratuaren iraupena 2021eko abenduaren 31n bukatu baitzen.

2021eko urtarrilaren 18an egindako esleipen dekretuan ebatzi zen “Anoetako hilerriko lanak aurrera eramateko zerbitzua kontratu txikiaren bidez (B20531448) Landarri, S.L. enpresari esleitzea, bere eskeintzaren arabera ondorengo prezioen truke...”. Dekretu horretan jasotzen zen legez, “Kontratu txikia da, SPKLren 131.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beraz ezingo du urte beteko iraupena baino gehiago izan, aipatu Legearen 29.8. artikuluaen arabera”. Halaber, honakoa jasotzen zen: “Kontratuaren iraupena 2021eko urtarrilean 1etik abenduaren 31^a artekoa izango da, kontratu honek ezin du urtebeteko iraupena baino gehiago izan eta ez da luzagarria izango”.

Gainera, kontratu txiki hori ez zen lehenengoa. Aitzitik, Idazkaritza-kontuhartzaitza honek ikusi ahal izan duenez, badaude beste hainbat kontratu txiki, kontratazio hau gutxienez 2017tik kontratu txikiren bidez kateatzen joan dela adierazten dutenak: 2017ko otsailaren 1eko dekretua, 2019ko otsailaren 12koa, 2020ko otsailaren 5koa...

Hortaz, argi dago urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua dela, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe, eta lizitazio-prozedura egokiaren bidez esleitu gabe, 9/2017 Legearen 131. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2023an, gainera, ez dago oinarri formala ematen dion kontratu irregularrik ere; aitzitik, zerbitzua aldeztu aurreko kontraturik gabe eman da.

013. DEKRETUA

2023.01.23

Hartzekodunak	IFZ / IFK
TOLOMENDI Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea	G20326237

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuaren langilearen lansarien eguneraketa atzera-eraginkortasunez (% 1,5)	F-142 2022.12.26	1109,40 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko urtarrilaren 23an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Dinamizazio eta aholkularitza lana lizitazio publikora atera beharko litzateke.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Tolomendirekin formalizatutako kontratua (legez kanpoko, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkerotik Anoetako Udalak Tolomendi enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarrizko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuak prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango litzuke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.
- Kontraturik ez dagoenez, eta, beraz, kontratuaren prezioa eguneratzeko formularik ez dagoenez, ezin da inola ere ordaindu zerbitzuak ematen dituen pertsonaren soldata-igoeragatikoko gastuak.

014. DEKRETUA

2023.01.23

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MUNDU MIRA KOOP. ELK.	F75054122

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Mundu Mira Koop. Elk. Komunikazio aholkularitza zerbitzua.	22141	1.023,45 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko urtarrilaren 23an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Komunikazio aholkularitza zerbitzua lizitazio publikora atera beharko

litzateke.

- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Mundu Mira Kooperazio Elkartearekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; harrezkeroztik Anoetako Udalak Mundu Mira Kooperazio Elkartearen zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarriko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarrabidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarrabidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak komunikazio aholkularitza zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango litzuke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

014. DEKRETUA

2023.01.23

Hartzekodunak	IFZ / IFK	
TARTE KOOP. ELK.	F20180899	
Prozedura		
Faktura kontratu txikietan onartzea		
Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Kiroldegiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua	0089	114,71 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko urtarrilaren 24an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik;
- Kiroldegiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;
- Fakturak ez du betetzen kontratazio publikoa arautu behar duen "zerbitzu eginaren printzipioa", hots, ez du betetzen administrazio-kontratuetatik eratorritako betebeharrak ekonomikoak betetzeari eta ordaintzeari buruzko araubide juridikoa, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotakoa.

022. DEKRETUA

2023.01.24

Hartzekodunak	IFZ / IFK	
OTERO PILOTAGILEA KOOP.ELK.	F20774089	
Prozedura		
Faktura kontratu txikietan onartzea		
Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
	000224	145,20 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko urtarrilaren 23an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik. Idazkari Kontu-hartzaileak eragozpenezko txostena egin zuen 2021eko irailaren 30ean Kuku Elkartea pelotako tailerra emateko kontratatzeke espedientearen kontra. Eragozpenezko txostena 2021eko irailaren 30eko Alkatetzako dekretu bidez atxatu zen eta, egun bereko beste Alkatetzako Dekretu bidez, pilotako klaseak emateko zerbitzua kontratatu zen Kuku Pilota Elkartearekin, 5.882 euroko zenbatekoagatik.
- Kontratuaren xedea “Pilotako klaseak emateko zerbitzua kontratatzea” zen; iraupena, 2021eko urriaren 4tik 2022ko ekainaren 2ra; eta ordaintzeko moduari dagokionez, honakoa jaso zen: “Faktura hilerro, urritik ekainera, hilean emandako ordu kopuruen arabera”.
- Esleipen dekretuan ez zen ezer berezirik esaten materialari buruz eta, horregatik, ulertu behar da pilota-ikastaroko zerbitzua emateko kontratatutako enpresak, gutxienez, zerbitzua eman ahal izateko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak izan behar dituela, eta, beraz, udalak ez duela bere gain hartu behar pilotak erosteko gastua.
- Pilotatako klaseak emateko zerbitzua kontratatzerakoan eta, gainera, zerbitzu hori “emandako ordu kopuruen arabera” ordaintzean, Idazkari Kontu-hartzaileak ulertzen du ordaindutako kopuruaren barruan emandako zerbitzu osoa sartu beharko litzatekeela eta, hortaz, ez dela bidezkoa kontratu horren kanpo beste fakturarik helaraztea piloten erosketagatik.

031. DEKRETUA

2023.01.30

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.267,21 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko urtarrileko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko urtarrilaren 30ean eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuaren luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarrikerik ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuaren gehienezko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espeditatearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

032. DEKRETUA

2023.01.30

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H

ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.920,19 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2023ko urtarrileko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko urtarrilaren 30ean eragozpenezko txostena egin zuela adieraziz, besteak beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatze “programa” baten barruan ezkatututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

036. DEKRETUA

2023.01.31

Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa (BEZ barne)
Gipuzkoako Ur Kontsorzioa Fra. 290079331	
FAKT-510 317 2022-05-18	4,50 €
Gipuzkoako Ur Kontsorzioa Fra. 290080517	
FAKT-867 317 2022-08-18	5,25 €
Gipuzkoako Ur Kontsorzioa Fra. 290081705	
FAKT-1129 317 2022-11-22	6,06 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030008715	
FAKT-247 2543 2022-03-14	71,20 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030008273	
FAKT-371 2543 202204-25	78,08 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030008272	
FAKT-374 2543 2022-04-25	75,38 €

Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030009019	
FAKT-570 2543 2022-06-13	70,10 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030007978	
FAKT-749 2543 2022-07-26	112,94 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030007998	
FAKT-815 2543 2022-08-24	41,36 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030008688	
FAKT-914 2543 2022-09-16	35,66 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030007756	
FAKT-985 2543 2022-10-20	40,55 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030009078	
FAKT-1064 2543 2022-11-15	36,74 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21220225030007887	
FAKT-1225 2543 2022-12-22	38,07 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21221229030008075	
FAKT-15 2543 2022-01-13	37,04 €
Iberdrola Clientes S.A.U. 21221229030008076	
FAKT-20 2543 2022-01-13	20,73 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2022ko abenduaren 30ean eta 2023ko urtarrilaren 31n egindako eragozpeneko txostenak.

Eragozpenak:

- Lokalaren titulartasuna Anoetako Herri Ikastolarena da eta, beraz, ez Udalekoa.

- Kaleberriko lokala erabiltzeko hitzarmenak ez du betetzen urriaren 1eko 40/2015 Legean lankidetzahitzarmenen gainean jasotako araudia, eta, beraz, hitzarmenak ez duela baliorik ez eraginkortasunik, Udalak ez baitzuen horretarako inolako eskumenik.

040. DEKRETUA

2023.02.02

Hartzekodunak		IFZ / IFK
CALEFACCIÓN TARSAT, S.L.		B20765665
Prozedura		Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea		451,16 €
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
74/22	2022-12-30	451,16 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko otsailaren 2an egindako eragozpenezko txostena.

2014ko urtarrilaren 1ean Anoetako Udalak kontratua sinatu zuen Calefacción Tarsat, S.L. enpresarekin. Horrezkeroztik, enpresa berdinak zerbitzu bera ematen jarraitu du, inolako kontratu-oinarririk gabe, eta hilabetero enpresak helarazitako fakturak iritsi dira.

Anoetako kirolegiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua inolako legezko euskarririk gabe eman eta jaso da 2015ko urtarriletik geroztik. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu. Izan ere, SPKLren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“kontratazio-organoek berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango diete lizitatzaleei eta hautagaiei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute (...) Kontratazioa ez da sortuko publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagokionak saihesteko asmoz, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoz ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede edo kalte eginez”*.

SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleituko baitira”*.

Gainera, *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako”* kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarrabidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarrabidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak adierazitako zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

041. DEKRETUA

2023.02.02

Hartzekodunak		IFZ / IFK
TARTE KOOP. ELK.		F20180899
Prozedura		Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea		769,44 €
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko otsailaren 2an egindako eragozpeneko txostena.

Udaleko bulegoetan ez da berogailu sistemaren mantenu-zerbitzuarek dagokion espedienterik topatu. Hortaz, Idazkaritza-kontuhartzaitza honek kontsulta egin du Sarekon, IZFEko aplikazioa kontabilitatea eramateko aplikazioa, eta ikusi du Udal honek gutxienez (ez du kontsulta egin gainerako urteetan) 2016tik kontratatzen dituela berogailu sistemaren mantenu-zerbitzuak Tarte Koop. Elkartearekin, inolako kontratu-oinarririk, espedienterik, ez beste izapiderik gabe.

Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarrizko printzipioak urratu ditu. Izan ere, SPKLren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“kontratazio-organoek berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango diete lizitzaileei eta hautagaiei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute (...) Kontratazioa ez da sortuko publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagokionak saihesteko asmoz, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoz ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede edo kalte eginez”*.

SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleitu baitira”*.

Gainera, *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako”* kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak adierazitako zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

056. DEKRETUA

2023.02.09

Hartzekodunak		IFZ / IFK
GURE ABOKATUAK, S.L.P.		B01553387
Prozedura		Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea		3.896,20 €
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
125/2022	2022-12-26	3.896,20 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko otsailaren 9an egindako eragozpeneko txostena.

2020ko irailaren 21ean Alkateak ondorengo dekretua ebatzi zuen:

“...

Lehena.- Aipatu diren zerbitzuak, Gure Abokatuak S.L. enpresari esleitzea, bere eskaintzaren arabera prezio honen truke:

- 70,00 €/orduko + 14,70 BEZ (%21). Guztira: 84,70 €/orduko.

- Aurreikusitako ordu kopurua: 80 ordu. Guztira: 5.600 € + BEZ.

Bigarrena.- Zerbitzu hau 2020ko irailaren 1ean hasi eta 6 hilabetez luza daiteke.

Hirugarrena.- Dagokion faktura aurkeztuz egingo da ordainketa.

Laugarrena.- Kontratuen izaera eta araubide juridikoa

Plegu honi jarraiki egingo den kontratua administratiboa izango da, eta, jaso gabeko guztiari dagokionez, honako

hauek bete behar dira: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioaren arloan aplikaziozkoak diren gainontzeko arauak.

Bosgarrena.- Datu pertsonalak babestea (...)

...”.

Lehenengo faktura 2021eko azaroaren 19koa izan zen: 80/2021 Faktura “1. fasea. Lanpostuen balorazioa (lanpostuen deskribapena eta organigrama)”, 4.840,00 eurokoa.

Ikusi daitekeenez, kontratu txikia prezio unitarioen arabera esleitu zen, 5.600 € + BEZ eko atalasea aurreikusiz. Horri buruz, SPKLk ez du inolako eragozpenik jartzen kontratu txikiei dagokionez, modu orokorrean ahalbidetuz 102.4 artikuluan. Hala ere, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, aurrekontu mugatzailea duten herri-administrazioek izapidetzen dituzten zerbitzu-kontratuetan, baldin eta enpresa zerbitzua elkarren segidan eta unitateko prezioan betetzera behartzen bada, kontratuaren xedean sartutako prestazioen guztizko kopurua zehatz-mehatz zehaztu gabe kontratua egitean, Administrazioaren premien mende daudenez, **gehieneko aurrekontu bat onartu beharko da. Kontratuaren indarraldian benetako premiak hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak badira, dagokion aldaketa izapidetu beharko da.** Kasu honetan, dekretuan jasotako atalasea gainditu egin da eta ez da kontratuaren aldaketarik tramitatu.

Bestalde, kontratu honek zuzenean urratzen du SPKLren 29.8 artikuluan jasotakoa (*Los contratos menores definidos en el apartado primero del artículo 118 no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga*). Udal honek bazuen lanpostuak baloratzeko prozesuaren aurrekari bat, urtebete baino gehiago iraun zuena. Beraz, jakina bazen prozesu horrek, ziurrenik, kontratu txikiaren gehienezko denbora-muga gaindi zezakeela, kontuan hartuta, gainera, balorazio prozesu batek fase jakin batzuk dituela zerbitzua ematen duen enpresaren mende ez daudenak, baizik eta kontratua egiten duen erakundearen eta haren langileen mende (negoziazio-fasea, alegazio-fasea...). Horregatik, SPKLren 29.8 artikuluan ezarritako denbora-mugaren arabera, debekatuta legoke halako ezaugarriak dituen zerbitzu bat kontratu txikiaren bidez esleitzea, eta, ondorioz, prozedura ireki edo murriztuaren bidez esleitu beharko litzateke nahitaez. Izan ere, SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *"Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleituko baitira"*.

Gainera, *"Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako"* kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikuluan eta SPKLren 39.1. artikuluan arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak adierazitako zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

056. DEKRETUA

2023.02.09

Hartzekodunak		IFZ / IFK
LAHAR ELKARGOA		G20380879
Prozedura		Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
2022/A292 (FAKT-1007 2026)	2022-09-30	82,35 €
2022/A321 (FAKT-1086 2026)	2022-10-31	164,70 €
2022/A351 (FAKT-1178 2026)	2022-11-30	164,70 €
2022/A387 (FAKT-1271 2026)	2022-12-30	128,71 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko otsailaren 10ean egindako eragozpenezko txostena.

Egindako eragozpenak:

- Goian aipatutako gastuaren ordainketa-agindua nuloa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 39.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, halaber Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikuluan jasotzen dena, ez baitago gastu horri legezko estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik.
- Estimulazio tailerra emateko zerbitzu-kontratua dagoeneko bitan kontratatu da, 2021eko urriaren 29ko dekretuz eta 2022ko otsailaren 3ko dekretuz, eta, gainera, enpresa berarekin. Hortaz, argi dago Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratzen dituela zerbitzu bera berriro ere kontratu txikiz kontratatu nahian.
- SPKLaren 99.2 artikulua, baita 1/2021 Jarraibideak, Anoetako Udalean kontratu txikiak izapidetzeari buruzkoak, 3. puntuan, diote kontratu bat ezingo dela kontratu txikitari zatitu, dagokion publikitate-betekizunak eta kontratazio-prozedura ireki, murriztu edo negoziatu baten betekizunak saihesteko helburuarekin. Zatikatzeko debekua kontratazio organoaren erantzukizuna da.
- Gizarte Zerbitzuetako Sailak aurrekusi izan beharko luke lehenengo kontratuan Estimulazio Tailerraren zerbitzuaren iraupena eta kontratu luzeago bat esleitu, lizitazio prozedura baten bidez. Ezin dena da xede berdinerako segidako hiru kontratu txiki erabili, kontratazio publikoaren oinarri diren publikitate- eta lehia-printzipioak urratzen baitira.
- Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazio Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak adierazitako zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

079. DEKRETUA

2023.02.22

Hartzekodunak		IFZ / IFK
SARENET, SAU		A48714489
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
P23012264	2023-01-02	97,31 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko otsailaren 21ean egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Orain arte Sareneta, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberetatik.
- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen araberkoa;
- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatu dago;
- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;
- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

080. DEKRETUA

2023.02.22

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MUNDU MIRA KOOP. ELK.	F75054122

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Mundu Mira Koop. Elk. Komunikazio aholkularitza zerbitzua.	23003 2023.01.31	1.023,45 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko otsailaren 21ean egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Komunikazio aholkularitza zerbitzua lizitazio publikora atera beharko litzateke.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Mundu Mira Kooperazio Elkartearekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; harrezkerotik Anoetako Udalak Mundu Mira Kooperazio Elkartearen zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazio Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak komunikazio aholkularitza zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango litzuke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

081. DEKRETUA

2023.02.22

Hartzekodunak	IFZ / IFK
ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA	A20145496

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
39706		1.006,72 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko otsailaren 22an egindako eragozpenezko txostena.

Berriak Berri udal aldizkaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua gutxienez 2018tik kontratatzen etorri da eta, gainera, enpresa berarekin, hainbat kontratu txiki kateatuz. Hortaz, argi dago Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu dituela; izan ere, urtez urte enpresa berarekin kontratatu du hornidura berdina, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Berrito gogorarazten da SPKLren 29.8 artikuluan jasotakoa ("Los contratos menores definidos en el apartado primero del

artículo 118 no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga”), baita Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordeak 2020ko martxoaren 5ean emandako 1/2020 Gomendioaren c) letran jasotakoa ere (“Gauzak horrela, segidako traktuko kontratuak, edo guztira hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena duten aldizkako errepikapeneko kontratuak, nahiz eta batzuetan zenbatekoa oso txikikoak izan, ez dira kontratu txikitzat hartuko segidako aurrekontu-ekitaldietan xede berarekin esleitu badiere ere”).

Gainera, kontratuaren espedientean ez da justifikatzen kontratuarekin ase beharreko beharra, ezta baliabide propio nahikorik ez izatea ere. Horrek guztiak urratzen du bai SPKLAN bai 1/2021 Jarraibidean xedatutakoa.

Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCON) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak urteroko Berriak Berri udal aldizkaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontratu prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu beharko luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

082. DEKRETUA

2023.02.22

Hartzekodunak	IFZ / IFK
Securitas Direct España, S.A.U.	A26106013

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
2301C00093216	2023-01-01	306,15 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko otsailaren 22an egindako eragozpeneko txostena.

Eragozpenak:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Securitas Direct enpresarekin formalizatutako kontratu (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; harrezkerotik Anoetako Udalak Securitas Direct enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCON) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak alarma-mantenu zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

108. DEKRETUA

2023.03.06

Hartzekodunak	IFZ / IFK
EGOITZ JAUREGI ITURRIOZ	72507188X
ME	Zenbatekoa

96-2023	169,48 €
---------	----------

Kontzeptua

Udalak Bake-epaitegiko idazkariari ordaindutako ordainsari osagarria

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko otsailaren 27an egindako eragozpeneko txostena.

Bake-epaitegiko idazkari funtzioak betetzen dituen pertsona ez da udal-funtzionario bat; beraz, Estatuko Administrazioak kargua betetzeagatik ematen duen ordainsaria jasotzeko eskubidea baino ez du, eta Udalak ezin dio aparteko ordainsaririk ordaindu, ez baita udal-administrazioan integratzen.

031. DEKRETUA

2023.01.30

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.267,21 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko otsaileko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko martxoaren 6an eragozpeneko txostena egin zuen adieraziz, bestea beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetza eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

032. DEKRETUA

2023.01.30

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.920,19 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2023ko otsaileko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko martxoaren 6an eragozpeneko txostena egin zuela adieraziz, bestea beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkatututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez

dagokion deialdia egin.

125. DEKRETUA

2023.03.09

Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa (BEZ barne)
Aseguru prima	
REALE SEGUROS GENERALES, S.A. 690018517813POL. 008211700000846	309,71 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2022ko abenduaren 30ean eta 2023ko urtarrilaren 31n egindako eragozpenezko txostenak.

Eragozpenak:

- Lokalaren titulartasuna Anoetako Herri Ikastolarena da eta, beraz, ez Udalekoa.
- Kaleberriko lokala erabiltzeko hitzarmenak ez du betetzen urriaren leku 40/2015 Legean lankidetzahitzarmenen gainean jasotako araudia, eta, beraz, hitzarmenak ez duela baliorik ez eraginkortasunik, Udalak ez baitzuen horretarako inolako eskumenik.

128. DEKRETUA

2023.03.09

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
P23022282	2023.02.01	97,31 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko martxoaren 9an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Orain arte Sarenet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilia. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberetatik.
- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen arabera;
- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;
- Goian adierazitako zerbitzu-kontratu ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;
- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

129. DEKRETUA

2023.03.09

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
844141176	2023.02.07	334,41 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko martxoaren 9an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.
- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

141. DEKRETUA

2023.03.14

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI AMONARRIZ ZUBELDIA	44167373J

Kontzeptua

Udalhitz Hitzarmeneko 56 bis artikulua araberako baimena, lanaldia erdira murriztekoa gaixotasun oso larria duen lehen mailako ahaidea zaintzeko.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko otsailaren 23an eta martxoaren 13an egindako eragozpenezko txostenak.

Eragozpenak:

Maddi Amonarriz Zubeldiari ezin zaio eman Udalhitz Hitzarmenaren 56 bis artikuluan salbuespen bezala jasotako lanaldiaren murrizketa ondorengo arrazoiengatik:

- 2023ko urtarrilaren 31n egindako eskarian ez dira jasotzen datorren astelehenetik aurrerako egunak, otsailaren 3tik martxoaren 3rakoak baizik.
- Ez du justifikatu salbuespenezko kasu hori aplikatzeko beharrezkoa den gaixotasun larriarik duenik lehen mailako familiarrak.
- Ez da ebazpenik eman baimen hori ematen dionik. Kontran, 2023ko otsailaren 24an, Alkateordeak baimena EZ ematearen aldeko ebazpena eman zuen.
- Ebazpen hori egun berean bidali zitzaion korreo elektronikoko bitartez, eta Idazkari Kontu-hartzaile honek berarekin hitz egin zuen telefonoz, ebazpenaren berri emanez. Gainera, langileak ebazpena jaso zuen, hala adieraziz, lanera bueltatu zen egun berean, 2023ko martxoaren 6an; beraz, nahiz eta bere eskariaren gaineko ebazpen bakarra haren kontrakoa izan, langilea lanaldi erdian baino ez da joaten lanera.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko OMI 6/2022 espedientearen berri ematen du, Alkateak 065. Dekretuz (2023ko otsailaren 10ekoa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea		
2021-2022 ikastarorako pilotako klaseak emateko zerbitzua kontratatzea		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
03-22 (FAKT-293 225)	2022-02-28	182,75 €
05-22 (FAKT-339 225)	2022-03-31	267,75 €
07-22 (FAKT-461 225)	2022-04-30	59,50 €
09-22 (FAKT-661 225)	2022-04-30	365,50 €
10-22 (FAKT-1174 225)	2022-10-31	1.260,00 €
11-22 (FAKT-1175 225)	2022-11-30	1.422,00 €
12-22 (FAKT-1256 225)	2022-12-25	1.017,00 €

Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
KUKU ELKARTEA G20144366	Pilota tailerreko larunbatetako aparteko orduak eta euskal pilota saioak
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Kultura	Alkatea

Behin Idazkariak aurreko guztiaren berri emanda, Rafael Uribarren zinegotziak galdetu du, batetik, Maddi Amonarriz langilearen gaineko bi dekretuen eta dagozkien eragozpenen gainean. Alkateak adierazi du horren gaineko azalpenak Ogasuneko Batzordean azaldu direla. Bestetik, zinegotziak galdetu du ea zer gertatzen den Maddi Sarasolarekin eta Jose Miguel Otañorekin, ea zer egin daitekeen horien egoera legezatzeko. Alkateak erantzun du, Maddi Sarasolaren kasuan, Ingurumeneko Teknikariaren plaza sortu behar dela eta, orduan, dagokion hautaketa-prozesua egin; gainera, adierazi du, bere ustez, programaren hirugarren urteko luzapena ez dela legearen kontrakoa, Idazkariak esaten duenaren kontra.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, beste galderarik egin gabe.

10.- ALKATETZAREN MARTXOAREN 1EKO EBAZPENAREN AURKA IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK 2023KO MARTXOAREN 27AN EMANDAKO ERAGOZPENAREN BERRI EMATEA.

Alkatetzak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari, eta honek 2023ko martxoaren 27 egindako eragozpenezko txostenean jasotakoa azaldu du, 2023ko martxoaren 1eko Alkatetzaren Dekretuaren kontrakoa.

Kontuan hartuta bai prozedura izapidetzea erabakitzeko bai prozedura ebazteko legez eskumena duen organoa Udalbatza dela, Udalbatzari dagokio Alkatetzaren eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzaren artean sortutako desadostasuna ebaztea.

Rafael Uribarrenek hitza hartu du eta adierazi du, bere iritziz, hoberena litzatekeela gaizki egindako prozedura guztia legez ezarritako prozeduraren arabera berriro izapidetzea.

Gainerako bertaratutakoak ados agertu dira Rafaelek emandako iritziarekin eta, aho batez, onartu du:

LEHENENGOA. Ez altxatzea Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko martxoaren 27an egindako eragozpeneko txostena, harekin ados egonda, eta, beraz, prozeduraren etena mantentzea.

BIGARRENA. Gizarte-langileari lanaldia % 100era handitzeko prozedura berregitea, legez ezarritako izapideak jarraituz.

HIRUGARRENA. Gizarte Langileari lanaldiaren % 100ari dagokion soldata ordaintzea, alegia, Alkatetzak 2023ko martxoaren 1ean dagokion ebazpena hartu zuenetik bete duena, bidegabeki aberasteko debekuaren printzipioaren arabera.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

Ez dago.

GALDE-ERREGUAK

6.- GALDE-ERREGUAK.

Lehenengo, Rafael Uribarren zinegotziak galdetu du ea errotondari buruz erantzunik jaso den. Alkateak erantzun du, hain zuzen ere, lehengo astean erantzun zutela; zehazki, elkarrizketan aritu da Mikelekin, zuzendaria. Gaia beste bilera batean jorratzekotan geratu dira, momentu honetan ez baitute espedientea eskuartean.

Bigarrenik, Anoetako Herri Ikastolari HABI proiektua garatzeko emandako dirulaguntzaren gainean galdetu du, zehazki, jakiteko ea Irurak bere zatia eman duen. Alkateak bere ezjakintasuna adierazi du, baita esan ere Irurak bere atala eman edo ez Udal honi ez diola eragiten azaldu ere.

Hirugarrenik, Diario Vasco egunkarian Arartekoari buruz azaldutako albistearen gainean galdetu du, non Anoeta agertzen den harekin kolaboraziori falta egin dion udalerrien artean. Alkateak azaldu du zein den Arartekoak albiste hori emateko kontuan izan duen kasua eta ziurtatu du kasu horri erantzuna eman zitzaiola, dagozkion eginkizun legalak eman zirela eta Arartekori horren berri eman zitzaiola, nahiz eta haren abisua eta gero gauzatu, albistean jasotzen den bezala.

Azkenik, Maddi Sarasola langilearen gainean galdetu du, zehazki, hura hautatzeko prozesuan Arartekoak izan zuen esku-hartzearen gainean. Adierazi du ez



duela ulertzen zergatik ez zen hautatu lehenengo postuan geratu zena, eta uste du bertan gertatutakoa mingarria dela Udal honen itxurarako. Alkateak adierazi du, bere momentuan, arrazoiak egon zirela Maddi Sarasola hautatzeko, eta ez lehenengo geratu zenari, hobeto akoplatzen zelako Udal honek zituen beharretara, eta eman beharreko azalpenak eman zituela Alkatetzak.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:15etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino